

Zerga Egutegia 2020



araba  álava
foru aldundia diputación foral

2020ko ekitaldirako zerga egutegiari esker, gida bat izango duzu Arabako Ogasunarekin egin behar dituzun izapideen xehetasunak jakiteko.

Aurten ere, zergadun bakoitzarekin dugun komunikazioa lehentasunezkoa da guretzat. Ogasunarekin dituzun harremanak ahalik eta hurbilenak izatea nahi dugu.

Horregatik, zerga egutegia eguneratu dugu, bertan aurkitu ahal izan dezazun zeure zerga betebeharrak erraz betetzeko behar duzun informazio guztia.

Gainera, kudeaketa ere ahalik eta gehien errazteko, Arabako Foru Aldundiak lanean jarraitzen du Interneten bidezko izapideak gero eta errazagoak egiteko. Gure web orrian (www.araba.eus) dituzu eskura online kudeatu daitezkeen izapide berri guztiak. Horrez gain, egutegian helbide eta telefonoak aurkitu ahal izango dituzu, nahi duzun zergaren edo izapidearen gainean argibide zehatzagoak jasotzeko.

Izan ere, teknologia berriak arabarren eskura jarri nahi ditugu. Abangoardiako Ogasuna lortu nahi dugu, zergadun bakoitzarekiko harremana hobetzeko balioko duena. Bere izapideak kudeatzeko biderik labur eta errazena hartzeko aukera izan dezan.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

Itziar Gonzalo

KONTUZ: Zerga egutegi hau 2019ko azaroan egin da. Arautegian harrezkero egindako edozein aldaketa kontuan eduki beharko duzu.

GAI OROKORRAK

OGASUN BULEGOAK

Hauek dira Arabako Foru Aldundiaren bulegoen helbide eta telefonoak:

- **Gasteizen:** Samaniego kalea, 14. zenbakia, p.k. 01008
Tel.: 945 18 18 18 – Faxa: 945 12 30 12 – e-maila: hacienda@araba.eus
- **Laudion:** Herriko plaza, z.g., p.k. 01400
Tel.: 94 672 54 83 – Faxa: 94 672 84 34 – e-maila: ollodiohacienda@araba.eus
- **Guardian:** San Juan plaza. Samaniegoren etxea, p.k. 01300
Tel.: 945 60 01 35 – Faxa: 945 62 10 69 – e-maila: ohaciendalaguardia@araba.eus

Derrigorrezko Dirubilketa: Probintzia plaza, 13 B, p.k. 01001 Gasteiz.

Tel.: 945 25 44 55 – Faxa: 945 25 44 74 – e-maila: recaudacionejecutiva@araba.eus

JENDEARENTZAKO ORDUTEGIA

Oro har: 8:15 - 14:30, astelehenetik ostiralera.

Jendearentzako ordutegi berezia, **Gasteizko bulegoan:** abuztuaren 4, 6, 7 eta 10ean eta irailaren 14an (Olarizuko jaia), 09:15etik 12:30era.

Jendearentzako ordutegi berezia, **Guardiako bulegoan:** ekainaren 23, 25, 26 eta 29an, 09:15etik 12:30era.

Jendearentzako ordutegi berezia, **Laudioko bulegoan:** apirilaren 3an eta abuztuaren 17, 25, 26, 27 eta 28an, 09:15etik 12:30era.

ZERGA ARGIBIDEETARAKO TELEFONOA

Zalantzaren bat edukiz gero edo zergen gainean kontsultaren bat egin nahi izanez gero, **945 18 15 55** telefonora deitu dezakezu 08:00etatik 14:30era bitartean, astelehenetik ostiralera.

ZERGA ARGIBIDEETARAKO POSTA ELEKTRONIKOKO HELBIDEA

Zergen arloko zalantzaren bat argitu nahi izanez gero, e-mail helbide honetara bidal dezakezu: consultasfiscales@araba.eus

BORONDATEZKO ORDEZKARITZA

Borondatezko ordezkariak araututa dago apirilaren 13ko 15/2010 Foru Dekretuan (ALHAO, 46. zk., 2010-04-30ekoa), zeina aldatu baitzuen otsailaren 13ko 6/2018 Foru Dekretuak (ALHAO, 22. zk., 2018-02-21ekoa).

Borondatezko ordezkariak aukera ematen dio zergapekoari bere konfiantzako pertsona edo profesional bat aukeratzeko, pertsona edo profesional horrek zergapekoaren izenean izapideak eta jarduerak egin, haren eskubideak egikaritu edo betebeharrak bete ditzan. Beraz, borondatezko ordezkariak ordezkatuaren izenean dihardu eta egiten duen guztia eta egindako guztiaren ondorioak ordezkatuaren gain uzten ditu.

Borondatzeko ordezkari izan daude, zergapekoak ogasunarekin egin beharreko izapideen arabera. Hain zuzen ere, 1. maila aitortzen aurkezteko da; 2. maila, zerga datuak kontsultatzeko, ziurtagiriak eskatzeko eta errolda ereduak aurkezteko; 3. maila, idazkiak, errekursoak... aurkezteko; eta, 4. maila, posta jakinarazpenak eta jakinarazpen telematikokoak jasotzeko eta jaso izana adierazteko.

ALDIZKAKO ZERGA BETEBEHARRAK

Zerga zein den eta zergapekoa nor den, aldizkako autolikidazioak aurkezteko betebeharra, oro har, izan daiteke:

- **Hiru hilabeterik behin:** banakako enpresaburuak, profesionalak, sozietateak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak, oro har.
- **Hilean behin:** banakako enpresaburuak, profesionalak, sozietateak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak, baldin eta haien eragiketa bolumena, 2019an, **6.010.121,04** euro baino gehiago izan bada (enpresa handiak) eta balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasiboak, baldin eta Zerga Administrazioaren egoitza elektronikoaren bidez erregistro liburuak nahitaez kudeatzen badituzte, eta 2019an **6.000.000** euro baino gehiagoko urteko aurrekontua duten administrazio publikoak.

ZERGA AITORPENAK EGOITZA ELEKTRONIKOAREN (INTERNET) BITARTEZ BIDALTZEA

Interneteko helbidea: **www.araba.eus**

Laguntza teknikoa eskatzeko telefonoa: 902 10 05 13 – Orduetgia: Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 14:30era. Urtarrilaren 27an eta 30ean, apirilaren 27an, ekainaren 25ean, uztailaren 27an eta urriaren 26an 24:00etara arte zabalduko da 902 10 05 13 zenbakian telefonoz atzemandako orduetgia, zerga aitortzen aurkezteko epea amaitzeagatik.

Posta elektronikoa: **diptaciondigital@araba.eus**

Egoitza elektronikora nola sartu jakiteko, jo hona: www.araba.eus, Egoitza Elektronikoa, "Nola sartu".

Zerga aitortzen telematikoki aurkeztu behar dute honako zergadun hauek:

1. Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak diren pertsona juridiko eta erakundeak.
2. Pertsona fisiko enpresaburu edo profesionalak, sozietate zibilek, ondasun erkidegoek eta jabeen erkidegoek, aurreko ekitaldian edo uneko urtean 15 erregistro baino gehiagoko urteko laburpen edo informazio aitortzen bat aurkeztu badute.
3. Hirugarrenen zerga aitortzen aurkezteko baimena duten profesionalak, baldin eta altan badaude Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren mendeko Baimenen Erregistroan, apirilaren 10eko 50/2001 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorritik.

Betebehar hori zerga aitortzen hauei aplikatuko zaie:

Errolda aitortzen, urteko laburpenak eta informazio aitortzen: 036-037-179-180-182-184-190-193-194-20R-231-232-280-289-290-296-347-349-553-720 eta 782.

Autolikidazio ereduak: 110-111-115A-117-123-200-202-203-210-211-216-220-222-223-230-303-310-322-353-390-391-410-411-581 eta 763.

Arautegia: 39/2010 Foru Agindua, otsailaren 3koa (ALHAO, 18. zk., 2010-2-15koa); honako hauek aldatu dute: 358/2010 Foru Agindua, maiatzaren 27koa (ALHAO, 63. zk., 2010-6-9koa); 427/2010 Foru Agindua, ekainaren 17koa (ALHAO, 72. zk., 2010-6-30koa); 325/2017 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa (ALHAO, 67. zk., 2017-06-14koa); 708/2017 Foru Agindua (ALHAO, 2. zk., 2018-01-5koa), 381/2018 Foru Agindua, ekainaren 18koa, eta 411/2018 Foru Agindua, ekainaren 27koa.

Laguntza programetan jasotzen diren zerga ereduak aitortzen guztiak telematikoki igorri ahalko dira, egoitza elektronikoaren bidez.

Zergadun partikularrek, pertsona fisikoak zein juridikoak izan, eta haien borondatzeko ordezkariak linean egin

ditzakete, laguntza programak erabili beharrik gabe, eta Interneten bidez bidali eredu hauek: 110-111-115A-117-123-124-126-128 202 210-211-216-222-230-231-303-310-322-353-390-391-410-411-430-480-553-560-581-583 eta 763.

ETIKETAK

Paperean aurkezten diren zerga aitortenetan nahitaez itsatsi behar dira identifikazio etiketak. Etiketen eredu ALHAOn argitaratu zen 1996ko abenduaren 4an (139. zk.).

Etiketak urtearen hasieran bidaltzen dira, egutegi honekin batera (zerga aitortenak telematikoki aurkeztu behar dituzten zergadunei ez beste guztiei).

Behar izanez gero, eska itzazu, gehien interesatzen zaizun bidea erabiliz: Interneten bidez **www.araba.eus-Ogasuna-Kudeaketako zerbitzuak-Etiketak eskatzea** webgunean, telefonoz 945 18 15 55 zenbakian, faxez 945 12 30 12 zenbakian, posta elektronikoz **hacienda@araba.eus** helbidean edo Foru Ogasunaren Errolda Kudeaketako eta Jakinarazpenetako Unitatearen Atalera etorrira (IFZren jatorrizkoa edo fotokopia aurkeztu behar da).

Hoberena duzu lehen lau bideetako bat erabiltzea, jendeari harrera emateko mahaietan luzaroan itxaron behar ez izateko. Lehen hiru kasuetan, etiketak zergadunaren zerga egoitzara bidaliko dira.

Pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren identifikazio agiria, berriz, aitortpena aurkezteko epea hasi aurretik bidaliko da.

Nolanahi ere, zure egoera zibila aldatu bada edo beste leku batean bizi bazara, gaurdanik horren berri eman dezakezu 009 eredu (jarduera ekonomikorik gabeko pertsona fisikoak) edo 037 eredu (jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoak) erabilia.

LAGUNTZA PROGRAMAK

(Doan duzu deskargatzea Interneten bidez)

Hona hemen zer laguntza programa eskura daitezkeen helbide honetan **www.araba.eus** "Ogasuna" izeneko atalaren barruan:

- Laguntza programa - Zerga ereduak: 110, 111, 115-A, 123, 180, 182, 184, 190, 193, 20R, 200, 203, 220, 223, 232, 303, 310, 347, 349, 390, 391 eta 720.
- Pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren laguntza programak: 100 eta 714 ereduak.
- Laguntza programa – Errolda ereduak: 009, 036 eta 037 ereduak.
- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergarako laguntza programa: 650, 651, 652, 653 eta 654 ereduak.
- Fabrikazioaren gaineko zerga berezien laguntza programa (EMCS/SIANE), administrazio agiri elektronikoak egin eta jasotzeko.
- Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren laguntza programa: 600U, 600R, 600M, 600P, 600S, 630 ereduak.

ESTANKOETAN SALGAI DAUDE INPRIMAKIAK

Dohainik eskura daitezke Interneten ere, hemen: www.araba.eus-Ogasuna-Zerga eredu eta inprimakiak-Zerga ereduak.

Ogasunaren bulegoetan luzaroan ez itxaron behar izateko:

Inprimaki hauek eros daitezke estankoetan:

- Balio erantsiaren gaineko zerga: 303, 310, 390 eta 391 ereduak.
- Atxikipenak eta konturako sarrerak: 110, 115-A, 180 eta 190 ereduak.
- Hirugarren pertsonetik eragiketen urteko aitortpena: 347 ereduak.

ORDAINTZEKO MODUAK

Ordainketa zergabilketan laguntzen duten finantza erakundeen bidez egin daiteke (Arabako lurralde historikoan jendearentzako bulegoak dituzten erakunde guztiek laguntzen dute zergabilketan).

Ordainketa eskudiruz egintzat joko da **modu** hauetako batean eginez gero:

1. Espainian legezkoa den dirua (euroak).
2. Txeki bidez; merkataritza arategiak ezartzen dituen baldintza orokorrez gainera, beste bi hauek ere bete behar dira:
 - Txeki izenduna izan behar du, Arabako Foru Aldundiaren aldekoa, eta zeharkatua.
 - Igorri duen erakundeak adostuta edo ziurtatuta egon behar da, behar diren datan eta eran.

Internet bidez bidaltzen diren autolikidazioetan, ordainketa zergabilketan laguntzen duen finantza erakunde batean helbidera daiteke, eta laguntza programa batez baliatzen direnek ordainketen pasabidea erabil dezakete.

IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA

Pertsona fisiko edo juridiko guztiek eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35.3 artikuluan aipatzen diren erakunde nortasun gabekoek identifikazio fiskaleko zenbaki bat (IFZ) eduki behar dute, eta nahitaez erabili behar dute zergen arloko harremanetan eta zergetan eragina eduki dezaketenetan, halaxe xedatzen baitu uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuak (ALHAO, 88. zk., 2008ko abuztuaren 4koa).

Pertsona fisikoen, pertsona juridikoen eta gainerako erakundeen IFZk Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuak ematen ditu. Hala ere, pertsona juridikoen eta gainerako erakundeek, zenbaki hori eskatzeko, **ALDEZ AURRETIKO HITZORDUA** eskatu beharko dute www.araba.eus helbidean edo telefono bidez (945 18 15 55).

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- **14 urtetik beherako pertsona fisikoen legezko ordezkariak** 009 errolda eredia aurkeztu behar dute urtarrilaren 28ko 41/2009 Foru Aginduan (ALHAO, 19. zk., 2009ko otsailaren 13koa) eskatzen den dokumentazioarekin batera.
- **Espainiako estatuan bizi ez eta AIZ eskuratzeko betebeharrak ez duen pertsona fisikoak** 006 errolda eredia aurkeztu beharko du beteta, urtarrilaren 28ko 41/2009 Foru Aginduan eskatzen den dokumentazioarekin batera (ALHAO, 2009ko otsailaren 13a, 19. zk.).
- **Pertsona juridikoen, sozietate zibilek, ondasun erkidegoek, jabeen erkidegoek eta gainerako entitateek** 036 edo 037 errolda eredia aurkeztu beharko dute beteta, urtarrilaren 28ko 41/2009 Foru Aginduak eskatzen duen dokumentazioarekin batera (ALHAO, 2009ko otsailaren 13koa, 19. zk.).

Notarioek behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia Internet bidez eska eta lor dezakete.

ZERGA ZIURTAGIRIAK ETA ZERGA AITORPENEN KOPIAK

Pertsona juridiko eta erakundeek, sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak badira, eta pertsona fisiko enpresaburu edo profesionalak, sozietate zibilek, ondasun erkidegoek eta jabeen erkidegoek, aurreko ekitaldian edo urte honetan 15 erregistro baino gehiagoko urteko laborpen edo informazio aitorpenen bat aurkeztu badute, **Interneteko egoitza elektronikoaren bidez eskuratu behar dituzte honako ziurtagiri hauek:**

- a) Zerga betebeharrak egunean dituztela dioten ziurtagiriak (azpikontratatistak, zerga egoera, dirulaguntzak, administrazio publikoekiko kontratuak).
- b) Beste ziurtagiri batzuk (landa edo hiri ondasun higiezinak, balio erantsiaren gaineko zergaren errolda, jarduera ekonomikoaren gaineko zerga eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga).
- c) Errolda egoeraren ziurtagiriak.

Aipatutako zerga ziurtagiriak momentuan eskura daitezke **Internet bidez (www.araba.eus)** egoitza elektronikoan. Halaber, **zerga aitorpenen kopiak** atera ahal dira Internet bidez “Banakako aitorpenak aurkeztea” edo “Errenta eta ondarea - Banakakoak” izapideen barnean, “Aitorpenen kontsulta” atalean.

Interneteko egoitza elektronikoa erabili ezean, ziurtagiriak eta zerga aitortpenen kopiak ondoren zehazten den moduan eskuratu ahaliko dira (martxoaren 8ko 160/2011 Foru Aginduari jarraituz –ALHAO, 33. zk., 2011-03-18koa– Internet erabiltzera behartuta daudenen kasuan izan ezik):

- **Internet bidez (www.araba.eus)**, ziurtagiri elektronikorik izan beharrik gabe, galdetegi bat betez. Ziurtagiria etxean jasoko duzu 2-3 lanegunetan; edo, nahiago baduzu, Ogasunaren bulegoetan jaso dezakezu 24 ordutan.
- **Telefono bidez** (zerga betebeharrak egunean dituztela dioten ziurtagiriak bakarrik, baldin nahitaez Internet bidez eskatu beharrik ez badute), 945 18 15 55 zenbakira deituta. Ziurtagiriak postaz bidaliko dira interesdunaren zerga egoitzara.
- **002 ereduaren bitartez (www.araba.eus** webgunean eskura daiteke); faxez (945 12 30 12) edo posta elektronikoz (**hacienda@araba.eus**) bidal daiteke, edo Foru Ogasunaren bulegoetara eraman (ereduarekin batera IFZren fotokopia aurkeztu behar da). Postaz bidaliko dira eskatzailearen zerga egoitzara, Ogasunaren bulego batean jaso nahi dituela adierazi ezean.

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOA

Aurreratzen dizuegu 2020an foru dekretu bat onetsiko dela, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren jakinarazpen eta komunikazioak bitarteko elektronikoen bidez nola egin arautuko duena. Haren arabera, sozietateen gaineko zergaren zergadunek eta haien ordezkariak, besteak beste, aurrerantzean ez dituzte posta bidez paperean jasoko jakinarazpenak eta komunikazioak; Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoko “Nire jakinarazpenak” atalean utziko dira.

Horretarako, indarrean sartu aurretik, Arabako Foru Ogasunak subjektu pasiboek jakinaraziko die nahitaez sartu beharra dutela jakinarazpen elektronikoen sisteman.

URTEROKO AITORPENAK ETA ALDIZKAKOTASUNIK GABEKO AITORPENAK AURKEZTEKO EPEAK

ERROLDA AITORPENAK

009 eredia : **jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoek** (enpresa jarduerarik ez lanbide jarduerarik egiten ez dutenek) **erabili behar dute hauek egiteko**:

- Zergadunen erroldan alta emateko eskatu; ez NAN ez AIZ ez dutenek IFZ eskatu, zergetan eragina duten eragiketak eginez gero (ez-egoiliarrek 006 eredia erabili behar dute).
- Identifikazio datuen, zerga egoitzaren, egoera zibilaren edo familia unitatearen osakeran eragina duten familia datuen aldaketa jakinarazi.
- Heriotzagatiko bajaren berri eman.

Nola aurkeztu 009 eredia:

- 1.-Egoitza elektronikoa linean bete eta eredia Internetez bidali.
- 2.-Laguntza programa erabiliz bete (**www.araba.eus** webgunean eskura daiteke), inprimatu eta faxez, posta elektronikoz, postaz edo eskuan aurkeztu Ogasunari (helbideak eta fax zenbakiak kontsultatu nahi izanez gero, Gai Orokorrak atalean daude).
- 3.-Ogasunean (Errolda Kudeaketako eta Jakinarazpenetako Unitatearen Atala) edo Interneten eskuratutako inprimakia bete eta faxez, posta elektronikoz, postaz edo eskuan aurkeztu Ogasunari (helbideak eta fax zenbakiak kontsultatu nahi izanez gero, Gai Orokorrak atalean daude).

Jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoek 037 eredia erabili behar dute komunikazio horietarako.

036 Eredua : **Pertsona juridikoek erabili behar dute** erroldako alta edo bajaren edo aldaketa baten berri emateko.

Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibo diren pertsona juridikoek eta erakundeek 036 eredia nahitaez aurkeztu behar dute Internetez, egoitza elektronikoaren bidez, identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzeko aurkezten dutenean izan ezik.

Nola aurkeztu 036 eredia:

Egoitza elektronikoan linean bete eta eredia Internetez bidali.

Salbuespena: IFZ eskatzen duten pertsona juridikoek 036 eredia **www.araba.eus** webgunean eskura daitekeen laguntza programa erabiliz beteko dute eta PDF agiria inprimatuko dute Ogasunari aurkezteko. IFZ eskuratzeko, hitzordua eskatu behar da telefonoz (945 18 15 55).

Notarioek beren bezeroen behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia Internet bidez eska eta lor dezakete.

037 eredia : **Pertsona fisikoek, jarduera ekonomikoa gauzatzen badute, eta sozietate zibilek, ondasun erkidegoek, jaraunspen banatugabeek eta gainerako erakundeek erabili behar dute** erroldako alta edo baja edo aldaketaren bat jakinarazteko.

Aurreko ekitaldian edo abian den urtean 15 erregistro baino gehiagoko urteko laburpena edo informazio aitortpena aurkeztu badute, pertsona fisiko enpresaburu edo profesionalak, sozietate zibilek, ondasun erkidegoek eta jabeen erkidegoek nahitaez aurkeztu behar dute 037 eredia Internetez egoitza elektronikoaren bidez, baita BEZaren hileko itzulketen erregistroan alta edo baja emateko eskatzeko ere. Salbuespena izango da IFZ eskatzea.

Nola aurkeztu behar duten 037 eredia Internetez aurkeztera behartuta daudenek:

Egoitza elektronikoan linean bete eta eredia telematikoki bidali.

Salbuespena: IFZ eskatzen duten sozietate zibilek, ondasun erkidegoek eta jabeen erkidegoek **www.araba.eus** webgunean eskuragarri dagoen laguntza programa erabiliz beteko dute 037 eredia eta PDF agiria inprimatuko dute Ogasunari aurkezteko. IFZ eskuratzeko, hitzordua eskatu behar da telefonoz.

Nola aurkeztu behar duten 037 eredia Internetez aurkeztera behartuta EZ daudenek:

- 1.-Eredua egoitza elektronikoan linean bete eta telematikoki bidali.
- 2.-Eredua laguntza programa erabiliz bete (**www.araba.eus** webgunean eskura daiteke), PDF fitxategia inprimatu eta postaz edo eskuan aurkeztu Ogasunari (helbideak kontsultatu nahi izanez gero, Gai Orokorrak atalean daude).
- 3.-Ogasunaren bulego batean bete eredia, aldeztu aurretik ordua hitzartuz, 945 18 15 55 telefonora deituta.

036 eta 037 ereduak aurkezteko epeak:

IFZ eskatzea: pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek, Arabako lurralde historikoan eratu edo ezarri eta hurrengo hilabetean, eta nahitaez enpresa edo lanbide jarduerari ekin baino lehen.

Alta aitortpena, IFZ edukita: jarduerari ekin baino lehen, eragiketarako egin baino lehen edo atxikipenak edo konturako sarrerak egin beharra sortu baino lehen.

Aldaketa aitortpena: oro har, hilabete izango da aurkeztu beharra sortzen duena gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, salbu eta urtarilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuak (ALHAO, 17. zk., 2011ko otsailaren 9a), zergadunen errolda bakarra eta errolda betebeharrak arautzen dituenak, 13.4. artikuluan aipatutakoak aurkezteko.

Baja aitortpena: hilabete, jarduera eteten denetik, bidezko erregistro ofizialeko idazpena deuseztatzen denetik edo zergapekoa hiltzen denetik.

BEZaren hileko itzulketen erregistroan inskribatzeko eskatu: inskripzioak ondorioak sortu behar dituen urtearen aurreko urteko azaroan. Subjektu pasiboek, erregistroan inskribatzeko eskaera aurkeztu ez dutenek inskripzioak eragiten hasi behar duen urtearen aurreko urteko azaroan, eta enpresaburuek eta profesionalak, enpresa edo lanbide jarduerari dagozkien ondasun entrega edo zerbitzu emateak gauzatzen hasi ez arren jarduera horietarako ondasunak edo zerbitzuak eskuratu dituztenek (ondasun edo zerbitzuen xedea elementu objektiboaren bidez berretsi behar da), orobat eskatu ahal izango dute erregistroan inskriba-

tzeko aldizkako aitorten-likidazioak aurkezteko dagokien epean (hila edo hiruhilekoa). Entitate taldeentzat abendua da epea.

Eskaera, nahitaez, Interneteko egoitza elektronikoaren bidez 036 eta 037 ereduak beteta egin behar da.

BEZaren araubide berezi bat hautatu, hautatutakoari uko egin edo hautapena baliogabetu: oro har, ondorioak sortu behar dituen urte naturalaren aurreko urteko abenduan.

PFEZen jarduera ekonomikoan etekina zehazteko modalitatea hautatu edo hautapena baliogabetu: Zuzeneko zenbatespen erraztuaren hautua edo hautuari uko egitea aurkeztuko da eragina izaten hasi behar duen urteko urtarrileko hilabete osoan zehar eta martxoaren 1 baino lehen. Jarduera bati ekiten bazaio, jardueraren alta jakinaraziko den errolda aitortenaren 037 ereduan adierazi behar da modalitatea hautatu dela.

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA ETA ONDAREAREN GAINEKO ZERGA

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkezteko epea:

Hasiera **2020ko apirilaren 6an (*)**

Amaiera **2020ko ekainaren 25ean (*)**

(*) Geroko arau xedapenek epea aldatzen ez badute.

OINORDETZEN GAINEKO ZERGA

Autolikidazioa kausatzailearen heriotza gertatzen den egunaren edo heriotzaren aitortpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik **SEI hilabete** pasatu baino lehen aurkeztu behar da (ereduak: 650, 652, 653, 654 eta 655).

Sei hileko epea hamar hilabetera luzatuko da, kausatzailearen heriotza edo Kode Zibileko 966. artikuluan aipatzen diren gertaerak atzerrian gertatzen badira.

DOHANTZEN GAINEKO ZERGA

Autolikidazioa zerga egitea gertatzen denetik 30 egun balioudun pasatu baino lehen aurkeztu behar da (ereduak: 651, 652, 653, 654 eta 655).

ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA

600U, 600R, 600M, 600P, 600S ereduak : Autolikidazioa aurkezteko epea **30 egun baliouduneko** da kargapeko eragiketa jasotzen duen agiria egilesten denetik aurrera.

630 eredu : 192.323,87 eurotik gorako zerga oinarria duten kanbio letren gaidikina eskudiruz ordaintzea: **30 egun balioudun**, zerga egitea gertatzen denetik. Atzerriko letren kasuan, epea **30 egun baliouduneko** da, Espainiako lehenengo edukitzailearen eskura jartzen direnetik.

620-TV eredu : zenbait garraibide erabiliren partikularren arteko salerosketa: **30 egun balioudun** ibilgailua eskualdatzen denetik.

610 eredu : kreditu erakundeek negoziatutako dokumentuak kargatzen dituen egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga eskudiruz ordaintzea: dagozkion eragiketak sortu eta hurrengo hilabetearen 25. egunera arte, salbu uztailera zerga, zeinaren aitortpena irailaren 25era arte aurkeztu eta ordaindu ahal izango baita.

611 eredu : aitortenaren urteko laburpena; hurrengo urteko otsailaren 1a baino lehen aurkeztu beharko da, eta bertan jaso beharko da aurreko urtean negoziatzeko edo kobratzeko onartu diren ordainagiriak, ordaindukoak, txekak eta merkataritzako beste dokumentu batzuk kargatzen dituen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eskudirutan ordaindutako zenbatekoei buruzko informazioa.

BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

308 eredia : **itzulketa eskaera** ez enpresaburu ez profesional ez direnek EBko beste herrialde batzuetara egindako garraio bide berrien entrega salbuetsiengatik: 30 egun natural ematea gertatzen den egunetik.

Itzulketa eskaera, bidaiariak edo salgaiak errepidez garraiatzen dituzten subjektu pasiboek, erregimen berezi erraztua aplikatzen dutenek, jarduera horiei atxikitako garraio bideak eskuratzeagatik jasandako kuotena: garraio bidea eskuratu ondoko hileko lehen 25 egun naturaletan.

309 eredia : **aldizkakotasunik gabeko aitorten-likidazioa**, ez enpresaburu ez profesional ez direnek EBko beste herrialde batzuetan garraio bide berriak eskuratzeagatik aurkeztu beharrekoa: 30 egun natural ondasuna eskuratzen denetik, eta nahitaez behin betiko matrikulatu baino lehen.

- **Hainbanaketa berezia aplikatzea hautatu edo hautapena baliogabetu**: ekitaldiko 390 eredian egin daiteke eskaera. Hartara, 2020ko urtarrilaren 1etik 30era bitartean hautatu ahalko da 2019rako hainbanaketa berezia aplikatzeko edo baliogabetu ahalko da hautatzea.

- **Erregistro liburuak** Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoen bidez (BIH) **kudeatzea**; hain zuzen ere, fakturazio erregistroak elektronikoki hornitzea, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera.

BIH nahitaezkoa da likidazio aldia hilabete naturalarekin batera doakien enpresaburu, profesional eta gainerako subjektu pasiboentzat: enpresa handiak, BEZaren taldeak eta Hileko Itzulketen Erregistroan (REDEME) izena emanda daudenentzat.

BIHari atxikitzeko betebeharririk ez dutenak, ordea, beren borondatez ere atxiki ahal zaizkio, **036 edo 037 ereduko aukera** baliatuz; eragina izaten hasi behar duen urte naturala hasi aurreko azaroan baliatu ahal izango dute aukera hori, edo jarduera hasteko aitortpena aurkezten dutenean, bestela. Aukera hurrengo urteetarako luzatu dela ulertuko da, aplikatzeari uko egiten ez zaion artean. Uko egitea 036 edo 037 eredian egingo da, eragiten hasi behar duen urtearen aurreko azaroan.

Oro har, BIHa aplikatzen dutenak salbuetsita daude "Hirugarren pertsonetikiko eragiketen aitortpena" izeneko **347 eredia** aurkeztetik.

SOZIALATEEN GAINEKO ZERGA

200-220 ereduak: Sozietateen gaineko zergaren aitorten-likidazioa

Aitortpena zergaldia amaitu eta hurrengo sei hilaren ondoko 25 egun naturaletan aurkeztu behar da. Establezimendu iraunkorren bidez jardunez gero, betebeharrak errealeko subjektu pasiboek ere aurkeztu behar dute.

Aipatutako epearen hasieran Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ez badu zehaztu zergaldi horretako aitortpena aurkezteko era, 25 egun natural izango dira aitortpena aurkezteko, aurkezteko era hori zehazten duen araua indarrean jartzen denetik aurrera.

Dena den, kasu horretan subjektu pasiboak aurreko paragrafoan aipatutako epean aurkeztea du aitortpena. Horretarako, aurreko zergaldiko aitortpenerako ezarritako betekizun formalak bete beharko ditu.

Zergak Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta lege arrunteko lurraldeko araudien pean ordaintzen dituzten erakundeek araudi horietan ezarritakoa bete behar dute, eta aitortpenak prestatuko dituzte nork bere administrazioko laguntza programak erabiliz.

Sozietateen gaineko zergaren aitorten guztiak, araudi aplikagarria eta aitorten eredia (200 edo 220) edozein direlarik ere, telematiko aurkeztu beharko dira egoitza elektronikoa erabiliz.

20R ereduak : Eragiketa hauen zerga araubide berezia aplikatzeko aukeraren komunikazioa: bategiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak, balore trukeak, aktiboaren eta pasiboaren lagapen osoak, eta Europako sozietate edo sozietate kooperatibo baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzea.

Eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoa inskribatu eta hurrengo hiru hilabeteetan aurkeztu beharko da. Inskripzioa beharrezkoa ez bada, eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoa egilesten den egunetik aurrera zenbatuko da epea. Eskrituran, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 114. artikuluan ezarritakoaren arabera, adieraziko da araubidea hautatu dela.

20R ereduak telematikoki aurkeztu behar da nahitaez, egoitza elektronikoaren bitartez.

202-222 ereduak : sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuaren aitortpen-likidazioa, Araban tributatu eta Nafarroako edo lege arrunteko lurraldeko araudia betetzen duten zergadunei zuzendua.

Zergadunari aplikatzekoa zaion araudian ezarritakoaren arabera kalkulatuko da ordainketa zatikatua.

Apiril, urri eta abenduaren lehenengo 20 egun naturaleko epea izango da aurkezteko.

Nahitaez telematikoki aurkeztu behar dira, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen ereduak online betez.

203-223 ereduak : sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuaren aitortpen-likidazioa, Araban tributatu eta lurralde historikoetatik edozeinetako araudia betetzen duten zergadunei zuzendua.

Betebehar horretatik salbuesita daude mikroenpresatzat edo enpresa txikitzat jotzen diren erakundeak eta talde fiskalak, edo Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 56. artikulua 4. eta 5. apartatuetan ezarritako karga tasak ordaintzen dituztenak.

Urriaren lehenengo 25 egun naturaleko epea izango da aurkezteko.

Telematikoki egoitza elektronikoaren bidez baino ezin dira aurkeztu.

231 ereduak : Informazio aitortpena herrialdez herrialde.

Aurkezteko epea hau izango da: eman beharreko informazioa zein zergaldiri dagokion, hura amaitu eta hurrengo egunetik hasi eta zergaldi hori amaitu ondoren hamabi hilabete igaro arte.

Nahitaez telematikoki aurkeztu behar da, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen ereduak online betez.

232 ereduak : Informazio aitortpena, eragiketa lotuei eta zerga paradisuekin lotutako eragiketei buruzkoa.

Eman beharreko informazioak aipatzen duen zergaldia amaitu eta ondorengo hamar hilabeteen ondorengo hilabeteetan aurkeztu beharko da.

Telematikoki egoitza elektronikoaren bidez baino ezin da aurkeztu.

ZENBAIT GARRAIOBIDEREN GAINKO ZERGA BEREZIA

05 ereduak : zergapean ez egoteko edo salbuespena edo zerga oinarriaren murrizketa aplikatzeko aurretiazko onarpena eskatzen bada, eredu hau behin betiko matrikulazioa baino lehen aurkeztu behar da 576 ereduarekin batera.

576 ereduak : autolikidazio eredu hau garraioidea behin betiko matrikulatu aurretik aurkeztu behar da, bai eta diru sarrera egin ere, behar izanez gero.

06 ereduak : aitortpen eredu hori aurkeztu behar da, zergadunari, kargapean ez egoteko edo salbuesita egoteko, aurretiazko onarpena eskatzen ez zaionean.

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEN ZERGA

Jarduera ekonomikoaren egoitzaren alta, baja edo aldaketa egin nahi duten zergadunek errolda aitortpena (036 edo 037 ereduak) aurkeztu beharko dute jarduera ekonomikoaren gaineko zergako jarduera-egoitzaren alta, baja edo aldaketa izapidetu aurretik, dela dagokien udalean (udal kuota) edo Arabako Foru Aldundian (probintzia kuota edo estatu kuota) (10/2015 Foru Dekretua, martxoaren 10eko; ALHAO, 33. zk., 2015eko martxoaren 18koa).

Errolda aitortpena eskatuko da, orobat, Gizarte Segurantzaren LAABeko altak izapidetzeko.

- **ALTA aitortpenak:** jardueran hasi aurreko hamar egun baliodunetan aurkeztu behar dira.
- **ALDAKETA aitortpenak:** aldaketa ekarri duena gertatzen denetik hilabete igaro baino lehen aurkeztu behar dira.
- **BAJA aitortpenak:** hilabete, jarduerari uzten zaionetik.
Subjektu pasiboa hilez gero, haren kausadunek baja aitortpena egin behar dute aurreko paragrafoan aipatutako epean (heriotza egunetik zenbatuta).
- **Eragiketen zenbatekoaren jakinarazpena:** **848 ereduak**: jakinarazpenak ondorioak sortu behar dituen urteko urtarillaren 1etik otsailaren 14ra arte, biak barne.

Aitortpenak aurkezteko lekua:

- Udal kuotaren bidez ordaintzen denean, jarduera egiteko tokia zein udal barrutian dagoen begiratu da, eta hari dagokion udaletxean egingo da, zergaren jarraibidean definituta dagoen bezala.
- Probintziako edo estatuko kuotaz ordaintzen denean, Arabako Foru Aldundian.
- 848 ereduak Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuan aurkeztu daiteke edota postaz bidal daiteke Arabako Foru Ogasunera.

EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEN ZERGA

1.- ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRA DUTENAK

Arabian dagoen establezimendu iraunkor baten bidez diharduten subjektu pasiboek zerga ordaintzeko betebeharrak pertsonala duten subjektu pasiboentzat ezarritako **modu, leku eta epeetan** aurkeztu behar dute aitortpena.

Azterrira bidalitako errenten gainean zergapetze osagarriak izan bada, 210 ereduak ere aurkeztu behar dute.

2.- ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABEAK

210 ereduak: Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren aitortpen arrunta.

Aurkezpen telematikoa

Autolikidazioa aurkezteko eta, hala behar izanez gero, ordaintzeko epea, kasu hauetan, errenta motaren arabera izango da:

- Ondasun higiezinak eskualdatuta lortzen diren errenten autolikidazioak aurkezteko, likidazioaren emaitza gorabehera, hiru hilabete izango dira, ondasun higiezinak eskualdatu denetik hilabete igarotakoan zenbatzen hasita.
- Ondasun higiezinaren errenta egotzian kasuan, sortzapen egunaren hurrengo urte osoa; hain zuzen ere, urteko azken egunetan bukatuko da epea.
- Ordaindu beharreko gainerako errentak edo zero kuotadunak, hiruhileko bakoitza bukatu ondorengo lehen hogeita bost egunetan, aurreko hiruhilekoan sortutako errentei gagozkiela.
- Itzultze eskaerako gainerako errentak: bost urte izango dira, itzulketa eragiten duten atxikipenen eta konturako sarreraren autolikidaziorako eta sarrerarako epealdia amaitzen denetik aurrera. Bost urteko epe hori autolikidazio guztiei aplikatuko zaie, itzulketa zerk eragiten duen kontuan hartu gabe (estatu barruko arautegiak edo zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen batek); hitzarmena garatzen duen aginduak epe laburragoa finkatzen duen kasuetan ere aplikatuko da. Autolikidazioa aurkezteko epealdia amaitutzat joko da aurkezten denean.

211 eredia : aitorpen-likidazioa. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei ondasun higiezinak erostean egindako konturako atxikipena.

Establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarrei ondasun higiezinak erostean egindako atxikipena (% 3) ordaintzeko erabiliko da.

Aurkezpen telematikoa

Epea: hilabete, higiezina eskualdatzen den egunetik aurrera.

213 eredia : Entitate ez-egoiliarren ondasun higiezin gainera karga berezia

Erakunde ez-egoiliarren ondasun higiezin gainera karga berezia aitortzeko eta ordaintzeko erabiliko da.

Epea: urte bakoitzeko abenduaren 31rako sortutako karga hurrengo urteko urtarrilean aitortu eta ordaindu behar da.

216 eredia : Ez-egoiliarrek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten gainera atxikipenen eta konturako sarreraren aitorpen-likidazioa.

Ez-egoiliarren errentaren gainera zergaren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentei konturako sarrerak edo atxikipenak aplikatu behar dizkieten subjektuek erabili behar dute.

Aurkezpen telematikoa

Epea: hiruhileko aitorpena bada (oro har), apirilaren, uztailaren, urriaren eta urtarrilaren 1etik 25era arte. Hileko aitorpena bada (enpresa handiak > 6.010.121,04 € aurreko urtean): hilaren 1etik 25era, aurreko hilarekiko; salbuespena: uztailekoak, hurrengo abuztuaren 1etik irailaren 10era arte aitortu behar dira.

289 eredia : Finantza kontuen urteko informazio aitorpena elkarrekiko laguntzaren esparruan.

Bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar da, web zerbitzuen bidez.

Epea: Urtarrilaren 1a eta maiatzaren 31 bitartean, urtero, aurreko urteko finantza informazioari buruzkoa.

290 eredia : Zenbait pertsona estatubatuarren finantza kontuen urteko informazio aitorpena.

Mezu informatikoa igorri aurkeztu behar da.

Epea: Urtarrilaren 1a eta maiatzaren 31 bitartean, urtero, aurreko urteko finantza informazioari buruzkoa.

291 eredia : Ez-egoiliarren kontuen etekinei buruzko informazio aitorpena.

Epea: urtarrilaren 1etik otsailaren 10era arte, aurreko urte naturalean lortutako etekinak aitortzeko.

296 eredia : Atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpen aitorpena. Establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarren.

296 eredia honako hauek aurkeztu behar dute: ez-egoiliarren errentaren gainera zergaren legezko arauetan ezarritakoarekin bat etorri zerga horren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten gainera zerga hori dela eta atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituzten pertsona fisikoek, juridikoek eta gainerako entitateek. Horretatik salbu daude inbertsio kolektiboko entitateen kapitalaren edo ondarearen akzioak edo partaidetzak eskualdatzen edo itzultzen direnean atxikipena edo konturako sarrera egin behar duten pertsonak, zenbait loteria eta apustutako sarien gainera atxikipena edo konturako sarrera egin behar dutenak, eta 21/2014 Foru Arauak, ez-egoiliarren errentaren gainera zergarenak, 25. artikuluko 2. apartatuan aipatzen duen atxikipena egin behar dutenak establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei ondasun higiezina erositako, urteko laburpenaren eredu berezia baitute.

Aurkezpen telematikoa

296 eredia baliabide telematikoen bitartez aurkeztu behar da nahitaez Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (www.araba.eus).

Epea: Urte bateko aitorpena hurrengo urteko urtarrilaren lehenengo hogeita hamar egun naturaletan aurkeztu behar da.

299 eredua: Europar Batasuneko beste estatuetan eta informazio-trukea itundu deneko beste herrialde eta lurraldeetan bizi diren pertsona fisikoek lortutako zenbait errentaren urteko aitortpena.

Epea: martxoan aurkeztu behar da.

GOGORATU

- Zerga baten aitortpena aurkezteko epeko azken eguna jaieguna edo larunbata izanez gero, epea hurrengo egun baldiodunera arte luzatuko da (44/2003 Foru Dekretua, martxoaren 7koa; ALHAO, 36. zk., 2003ko martxoaren 28koa).
Neurri horrek ez du eraginik izango finantza erakundeek Arabako Foru Aldundiari diru sarrerak egiteko finkatuta dauzkaten egunei dagokienez.
- Harpidetza egin dezakezu **www.araba.eus** webgunean (Ogasuna - Zerga informazioa – Egutegi fiskala), hil bakoitzari dagozkion epemugak jasotzen dituen egutegia hilerok jasotzeko.

URTARRILA

9ra ARTE		EREDUA
ZERGA BEREZIAK		
• 2019ko azaroa. Enpresa handiak		554, 555, 556, 557, 558
10era ARTE		
ERRENTA		
Ordainketa zatikatuak. Enpresa jarduerak / jarduera profesionalak eta nekazaritza eta abeltzaintzakoak		
• 2019ko bosgarren bihilekoa (baldin eta PFEZaren Erregelamenduaren 40/2014 Foru Dekretuaren 106.bis artikulua aipatzen duen bi hilerik behingo zatikako ordainketa hautatu bada):		
1.- Ofiziozko ordainketa zatikatuak, zergadunari jakinarazia.		
2.- Ordainketa zatikatuak, jardueraren hasiera 2019an denean: zergadunak 130 ereduak erabiliko du autolikidazioa egiteko.....		130
27ra ARTE		
ERRENTA, SOZIETATEAK ETA EZ-EGOILIARRAK (establezimendu iraunkorra dutenak)		
Honako hauen atxikipenak eta konturako sarrerak: lanaren etekinak, jarduera ekonomikoen etekinak, sariak, hiri higiezin errentamenduaren etekinak, ondare irabaziak eta kapital higigarriaren etekinak		
• 2019ko laugarren hiruhilekoa		110, 115-A, 117, 123, 124, 126, 128, 230
• 2019ko abendua. Enpresa handiak		111, 115-A, 117, 123, 124, 126, 128
• 2019ko urteko aitortpena. Paperean aurkeztea		180, 190, 193, 194
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA EDO BASOGINTZAKO JARDUERAK DIRELA ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK, KALTE ORDAINAK EDO LAGUNTZAK		
• 2019ko urteko aitortpena. Paperean aurkeztea		346
EZ-EGOILIARRAK (establezimendu iraunkorrik ez)		
Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentei aplikatutako atxikipenak eta konturako sarrerak		
• 2019ko laugarren hiruhilekoa		117, 216
• 2019ko abendua. Enpresa handiak		117, 216
JOKOAREN GAINEKO ZERGA		
• Apustu bidezko jokia. 2019ko laugarren hiruhilekoa		048
• Bingo elektronikoa. 2019ko laugarren hiruhilekoa		043E
JOKO JARDUEREN GAINEKO ZERGA		
• 2019ko laugarren hiruhilekoa		763
ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGA		
• 2019ko abendua		430
• 2019ko aitortpenaren urteko laburpena.....		480
ZERGA BEREZIAK		
• 2019ko urria. Enpresa handiak (*).....		561, 562, 563

Az	1
Og	2
OI	3
Lr	4
Ig	5
Al	6
Ar	7
Az	8
Og	9
OI	10
Lr	11
Ig	12
Al	13
Ar	14
Az	15
Og	16
OI	17
Lr	18
Ig	19
Al	20
Ar	21
Az	22
Og	23
OI	24
Lr	25
Ig	26
Al	27
Ar	28
Az	29
Og	30
OI	31

EREDUA

• 2019ko abendua. Elektrizitatearen gaineko zerga. Enpresa handiak.....	560
• 2019ko abendua. Enpresa guztiak	581, 566
• 2019ko abendua. Enpresa guztiak	570, 580
• 2019ko abendua. Fabrikazioaren gaineko zergak. Jasanarazitako kuoten aitorten informatiboa ...	548
• 2019ko laugarren hiruhilekoa. Enpresa guztiak	553
• 2019ko laugarren hiruhilekoa. Elektrizitatearen gaineko zerga	560
• 2019ko laugarren hiruhilekoa. Hornitutako lehengaien hiruhilekoko zerrenda.....	521
• 2019ko laugarren hiruhilekoa. Zerga Bereziei buruzko Araudiaren 108 ter artikuluan adierazitako produktuen hiruhilekoko agiria.....	522
• 2019ko laugarren hiruhilekoa. Itzulketa eskaerak	
- Alkoholaren eta edari alkoholodunen kontsumoak	524
- Hidrokarburoen kontsumoa.....	572
- Gordailu fiskalean sartzea, igorpen bermatuak eta urrutiko salmentak	506, 507, 508
(*)Hartzaille erregistratuek, lantzean behingo hartzaille erregistratuek, zerga ordezkariak eta jasotzaile baimenduek	510

INGURUMEN ZERGAK

Berotegi efektua duten gas fluoratuen gaineko zerga

• 2019ko hirugarren lauhilekoa	587
--------------------------------------	-----

FINANTZA AKTIBOekin ETA BESTE BALORE HIGIKOR BATZUEKIN EGINDAKO ERAGIKETAK

• 2019ko urteko aitortpena. Paperean aurkeztekoa.....	198
---	-----

30era ARTE

BEZA

• 2019ko urteko aitorten-likidazioa. Araubide orokorra	390
• 2019ko urteko aitortpena. Erakunde taldea. Banakako eredia.....	390
• 2019ko urteko aitorten-likidazioa. Araubide erraztua.....	391
• 2019ko abendua. Batasunaren barruko eragiketak biltzen dituen aitortpena.....	349
• Erakunde taldea. Eredua erantsia. Urteko autolikidazioa.....	353
• 2019ko laugarren hiruhilekoa. Aldizkakotasunik gabeko aitorten-likidazioa	309
• 2019ko laugarren hiruhilekoa. Batasunaren barruko eragiketak biltzen dituen aitortpena	349
• Batasunaren barruan 2019an egindako eragiketen laburpen aitortpena (BEZaren Erregelamenduko 81. artikuluan ezarritako inguruabarretan dauden subjektu pasiboak) ...	349
• Itzulketa eskaera, baliokidetasun errenergua eta noizbehinkako beste subjektu pasibo batzuk.....	308
• NAAko BEko konpentsazioen itzulketa	341

ERRENTA, SOZIJETATEAK ETA EZ-EGOILIARRAK

Honako hauen atxikipenak eta konturako sarrerak: lanaren etekinak, jarduera ekonomikoen etekinak, sariak, hiri ondasun higiezinaren errentamenduaren etekinak, ondare irabaziak eta kapital higigarriaren etekinak

• 2019ko urteko aitortpena. Euskarrian eta Internet bidez aurkeztea.....	180, 188, 190, 193, 194, 196, 270
--	-----------------------------------

Atxikipenak eta konturako sarrerak (establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarra)

• 2019ko urteko aitortpena. Telematikoki aurkeztea	296
--	-----

JASOTAKO EMARIAK, DOHAINTZAK ETA EKARPENAK ETA EGINDAKO XEDATZEAK

• 2019ko urteko aitortpena. Paperean, euskarrian eta Internet bidez aurkeztekoa.....	182
--	-----

TALDE INBERTSIOKO ERAKUNDEEN AKZIOEN ETA PARTAIDETZEN ESKURAKETAK ETA BESTERENTZEAK	EREDUA
• 2019ko urteko aitortpena.....	187
ALTXORTEGIKO LETREKIN ERAGINDAKO ERAGIKETAK	
• 2019ko urteko aitortpena.....	192
ETXEBIZITZA KONTUAK	
• 2019ko urteko aitortpena.....	781
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA EDO BASOGINTZAKO JARDUERAK DIRELA ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK, KALTE ORDAINAK ETA LAGUNTZAK	
• 2019ko urteko aitortpena. Euskarrian aurkeztekoa.....	346
EPE LUZERAKO AURREZKI PLANEI BURUZKO URTEKO AITORPEN INFORMATIBOA	
• 2019ko urteko aitortpena.....	280
BERRIKUNTZA SUSTATU NAHIAN EUROPAKO FUNTSETAN PARTAIDETZAK LORTZEKO GORDAILUEN URTEKO AITORPEN INFORMATIBOA	
• 2019ko urteko aitortpena.....	782
31ra ARTE	
ETXEBIZITZAK ERABILERA TURISTIKORAKO LAGATZEA	
• 2019ko laugarren hiruhilekoa.....	179
ONDASUN HIGIEZINEN INGURUKO MAILEGUAK, KREDITUAK ETA FINANTZA ERAGIKETAK	
• 2019ko urteko aitortpena.....	181
FINANTZA AKTIBOekin ETA BESTE BALORE HIGIKOR BATZUEKIN EGINDAKO ERAGIKETAK	
• 2019ko urteko aitortpena. Euskarrian aurkeztekoa.....	198
BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENEN ENTITATEAK, PENSIO PLAN ETA FUNTSAK, GIZARTE AURREIKUSPENEN SISTEMA ALTERNATIBOAK ETA MUTUALITATEAK, ASEGURATUTAKO AURREIKUSPEN PLANAK, AURREZPEN SISTEMATIKORAKO BANAKAKO PLANAK, ENPRESARIEN GIZARTE AURREIKUSPENEN PLANAK ETA MENPEKOTASUN ASEGURUAK	
• Bazkide edo partaideen eta erkarpenen urteko aitortpena, 2019ko ekitaldia.....	345
EZ-EGOILIARRAK	
Entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga berezia	
• Sortzapena 2019-12-31n.....	213
IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA	
Kreditu entitateei IFZ jakinarazi ez dietenen kontuak eta eragiketak	
• 2019ko laugarren hiruhilekoa. Paperean aurkeztekoa.....	195
